

**ERABAKIA, 2015eko MARTXOAREN 10ekoa, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, HORREN BIDEZ, BIZKAIKO CAMPUSEKO LIBURUTEGIraiko "LIBURUTEGI ATALAKO ARDURADUNA" LANPOSTUA ALDI BATEZ ETA ZERBITZU EGINKIZUNETAN BETETZEKO DEIALDIA, 2015eko OTSAILAREN 3koa, EBATZI DA.**

## **GERTAKARIAK**

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearen 2015eko otsailaren 3ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

Bigarrena.- 2015eko martxoaren 2ko erabakiaren bidez, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Hirugarrena.- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

## **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

Lehenengoa.- Honako hauek dira aplikagarri:

- Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAn argitaratua).
- Gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko den 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia, UPV/EHUko errektorearena (2013ko otsailaren 13ko EHAA)
- Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa. Akordioa hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn).
- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen 2015eko otsailaren 3ko erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

Bigarrena.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2013ko urtarrilaren 30eko errektorearen erabakiaren bidez (2013ko otsailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

Hirugarrena: Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa izango da. Akordioa hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn).

Laugarrena.- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau

### ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Bizkaiko Campuseko Liburutegirako "Liburutegi Atalako Arduraduna" lanpostua Zerbitzu eginkizunetan aldi baterako esleitzea, hautatutako funtzionarioari, erabaki honetako I. eranskinen jasota dauden baldintzetan.

Bigarrena.- Esleipena 2015eko martxoaren 16ko ondorio-dataz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2014ko uztailaren 1eko erabakiaren 9. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, Bibliotekako Zuzendariari, Campuseko Liburutegiaren Zuzendari Atxikiari, eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

Bosgarrena.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar daskioke gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2015eko martxoaren 10ean.

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia  
(2013ko otsailaren 13ko EHAAn).

GERENTEA

Sinatua: Miren Lorea Bilbao Arteche



## I. ERANSKINA

**2015eko MARTXOAREN 10eko ERABAKIA, UPV/EHUKO GERENTEARENA BIZKAIKO CAMPUSEKO LIBURUTEGIRAKO "LIBURUTEGI ATALAKO ARDURADUNA" LANPOSTUA ZERBITZU EGINKIZUNEN ERREGIMENEAN EMATEA EBAZTEN DUENA (2015EKO OTSAILAREN 3ko ERABAKIAREN BIDEZ IRAGARRITAKO DEIALDIA)**

**Esleipenduna: NATIVIDAD BLANCO GONZALEZ**

**Erref.: F1172**

**Zenbatgarrena: 15**

**Taldea: B**

**Eskala edo kidegoa: Artxibo, Biblioteka eta Museoetarako Laguntzailea.**

**Hizkuntza eskakizuna: 3**

**Langunea: Bizkaiko Campuseko Biblioteka**

**Campusa: Bizkaia**

**Ondorioetarako data: 2015eko martxoaren 16a**

II. ERANSKINA

PUNTUAZIOEN ZERRENDA - ZERBITZU EGINKIZUNA - 15/02/3 DEIALDIA

1327	F 1172	LIBURUTEGI ZERBITZUKO ARDURADUNA		Hor. 15	HE 3	BIZKAIKO CAMPUSEKO LIBURUTEGIA													
ADJ	DNI	DEITURAK, Izena	ORD	PUNT. GEZT.	ANTZIN Urteko Punt.	EMANDAKO SERBITZUAK GUZT.	F= Taldea HIL. Puntuak	D= Taldea HIL. Puntuak	C= Taldea HIL. Puntuak	EJUN ZERR. HIL. Puntuak	F= Taldea HIL. Puntuak	D= Taldea HIL. Puntuak	C= Taldea HIL. Puntuak	BESTE ADM. HIL. Puntuak	GRADUA G < Punt.	TITUL. Puntos	IBIZK. Puntos	EUSKARA FL Ptos.	ELKAR. Puntos

a) Deitutako lanpostuaren talde eta eskala bereko karreradun funtzionariak.

ADJ	14909375Q	BLANCO GONZALEZ, NATIVIDAD		36,6100	28	12,6	18,00	180	18,00			50	5,00	230	18,00							21	-1	3,5				1	2,51	
-----	-----------	----------------------------	--	---------	----	------	-------	-----	-------	--	--	----	------	-----	-------	--	--	--	--	--	--	----	----	-----	--	--	--	---	------	--

c) Deitutako lanpostuaren beheagoko hurrengo talde eta eskalako karreradun funtzionariak.

	16036568E	MACHO YAÑEZ, ANA ISABEL		26,2000	24	10,8	5,80					50	5,00	50	5,00	2	0,20	6	0,60			8	0,80	18	-3	0,5				3	9,1	
	20174885K	ZARZA BASABE, MARIA		21,7000	6	2,7	7,40	35	3,50			32	3,20	67	6,70	1	0,10			6	0,60	7	0,70	18	-3	0,5	2,00			3	9,1	

d) Behin behineko funtzionariak.

	11905653	RUIZ DE LA FUENTE, INMACULADA		35,9700	23	10,35	18,00	179	17,90			179	17,90							20	2,00	20	2,00					2,00		2	5,62	
	29035726	SANCHEZ OJANGUREN, DESIREE		25,1500	8	3,6	10,20	100	10,00	2	0,20			102	10,20													2,00	0,25	3	9,1	
	45625364	GARCIA GONZALEZ, MARIA TERESA		19,4000	9	4,05	6,00	40	4,00			40	4,00							20	2,00	20	2,00						0,25	3	9,1	
	44145032	JALON GOYA, AMAIGOIA		14,2000	0	0	1,10	7	0,70			7	0,70							4	0,40		4	0,40				2,00	2,00	3	9,1	